



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2016/2017 Denboraldia

18ZK.DUN ZIRKULARRA

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL GAZTE KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin bat, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo araei jarraiki :

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Nazional Gazte mailako hurrengo lau taldeek hartuko dute parte:

Gora Bilbao C.
Laskorain K.E.
Lauburu Ibarra K.E.
Zierbena F.S.

2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: Aurrekoa eta Finala.

Aurreko Fasea (Maiatzak 6 eta 13)

Zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira parte hartzaileak, partiden ordena eta bikoteak ezarriz.

Finala

Aurreko Faseko bi irabazleen artean ospatuko da, maiatzaren 21ean, Areto Futboleko Eusko Batzordean izendatutako instalazioan.

Espainiako klubuen kopako Lehenengo Fasearen emaitzen zai, Fase Finalean hauen arteko talderen bat parte hartuko balu Finala maiatzaren 28an jolastuko litzateke.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

3. ZOZKETA

JOAN

Laskorain K.E – Lauburu Ibarra K.E.
Gora Bilbao C – Zierbena C.F.S.

ETORRIA

Lauburu Ibarra K.E. – Laskorain K.E.
Zierbena C.F.S. – Gora Bilbao C.

4.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez hiru jokalaria parte hartu behar dute partidaren iharduera osoan zehar.

5.- BERDINKETAK

Aldi baterako berdinketak EFF-FVFko Arautegi Nagusiak ezartzen duen moduan ebatziko dira.

Fase guztietan, amaierako partiduan izan ezik, berdinketaren kasuan ez da ezarritako luzapena ospatuko eta zuzenean penalti gunetik jaurtiketak egiteari ekingo zaio.

Azkeneko partiduan berdinketarekin amaitzen denean, hamar minutuko luzapena ospatuko da, bost minutuko bi denborekin atsedenaldirik gabe, jokoreremua hautatzeko zozketa eginez. Luzapena amaitutakoan berdintasuna ebatziko ez balitz, penalti gunetik jaurtiketa batzuek egiteari ekingo litzaioke.

6.- EPAILEAK

Partidak zuzenduko dituzten epaileen izendapena, Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoak egingo du.

Areto Futboleko Batzordeak partiden Ordainagiriaren ordainketaz kargutuko da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari, (Fax 94-473.22.21 p.e. futbolsala@eff-fvf.eus edo EFF-FVF web gunean) 11. Zirkularrak ezartzen duen moduan.

8.- GARAIKURRA

Euskadiko Futbol Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat.
Hamabost dolumina talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

8.- DIZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroen aktak EFF-FVF Araudi Orokorrak ezartzen duen moduan (p.e. futbolsala@eff-fvf.eus Fax 944732221), Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2017ko apirilaren 25an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General